



Cristina Lacasa Ibaibarriaga.

Iruña'ko alaba gazte baten omenez

Gauza guztik badu bere neurria, eta neurriz gaidik gauzarik politenak ere itsusiturik gelditzen dire. Gaur, uztailak lau, Zaragoza'n ari naiz gure «Naparroa'ko Egunkari» onentzat idazten.

Gaur aintzuzen iritxi da Londres'tik Conchita Martinez neskak, an Wimbledon'en tenis-leiaketan txapeladun irten-berria. Ez dakizu nolako arrera egin dieten! Neurritz-kanpoko oso-osoa.

Ez dut ezer tenisten aurka. Egia da, tenis ori beñio askoz ederra, askoz ikusgarriagoak iduritzen zaizkitela gure eusko-pelotaren antziñako «joku-garbia» eta «errebotea», baiñan ez dut alare artean, Wimbledon'go txapelketa munduko tenis-saiozik garrantzitsuenaren izen bide da. Eta aurren emakumezkoen artekoa Kontxita onek irabazi du. Zorionak Kontxiri!

Baiñan nere ustez askoz balio geiagokoa da gure Iruña'ko neska toak lortu duan txapela. Españiko Laterrian, gazte guztien artean, berak irabazi bait du matematikaren txapelketa.

«Iruñesem», esaten zaie Iruña'n jaiotako gizonezkoek. Zillegi bezait «iruñalaba» esatea Iruña'ko emakumezkoek. 15 urteko gure iruñalaba onek KRISTINE LAKASA IBAIBARRIAGA deritza. Bere abizenek adierazten dutenez, naparra (edo arabarra) izen ditekete aitaren aldeetik eta bizkaitarra amarenetik. Berdin da. Iruña'n jaio da beintzat eta iruñalaba dugu neskatz argi, polit, maitagarri ori. Eta euskalduna ere bada beintzat. Euskalerri osoaren aintza.

Eta berak lortu dunak, egunotan Kontxita Fernandez'ek eta beste aintseste eta aintseste kirolariak Frantzi'ko txirrindulariek eta Laterri Alkaretako fubolariak lortu dezaketenguztiak beñio askoz geiago balio du.

Alare gure Kristiñe'ren lorketak ez du Aragoi'ko Kontxita'renak bezelako istillurik sortu.

Orainarte «Agustina de Aragon» zuten aragoitarrek beren jainkeme txikia. Emendik aurrera jartzen al dute are lekuan Kontxita Fernandez au kañoiei su emateko zuziaren ordez eskuan tenis-jokua egiteko sare duela.

Eskerrak gure «Naparroa'ko Egunkari» onek Ekaiñaren 30'ean Kristiñe'ren garaitza jaso zula eta gure neskati orri oso bat eskeiñi ziola! Orrela, jakin aal izen dute gure neska-mutillak Kristiñe'ren ekintza ederraren berri.

Iruña'rentzat, Naparra'rentzat, Euskalerri osoarentzat eta mundu guztia-rentzat, garrantzi aundiagokoa bait da matematika sakonki ikastea tenis-pelota yayoki dantzaten jakitea baiño.

Alare, Kristiñe'z ez du egunotan inork ezer geiagorik esango, Kontxita'z ordea, omenaldiak direla, goratzareak direla, mintza ta mintza jarraituko dute izparringiek, irratiek eta telebistek. Aragoi'ko Jaurilaritza bera ere, Kontxita aundikiro bere Jauregian arteketan bait dabil.

Ez dio ajolik. Aurrera zuk Kristiñe. Munduak ez du gauza aundiegirik galduko gaztekiak kirolen arloan Kontxita'ri jarraitzen ez ba'dio. Baiño izugarriko galerak

izango lituzke, jakintzen bidetik zuri jarraituko ez ba'lizuke. Gogoan dut, nolako losintxa-pilloa jaso zuen igaz Migel Indurain txirrindulariak, eta oartu naiz nolako kezak sortu diren gure artean, aurren ere Frantzi'ko itzulia irabaziko ote dunari-buruz.

Lasai, indurainzale guztiok. Munduak ez dute aurrera eramango Indurain'ek bezala bideak ibiltzen trebeak direnek; Kristiñe'k bezala mai baten ondoan ikasketan orduak sartzen badakitenek baizik.

Negarrez dago Arjentina, garai batean ain aberatsa zan eta gaur bere ekonomi guztia ondututa gose gorriko mixerian aurkitzen den Arjentina, Maradona futbolaria munduko futbol-txapelketa-tik baztertuta izen delako.

Txoraturik dabil. Arjentina'ko ekonomia ez dute Maradona bezalako futbolariak berbiztuko. Matematika bait da gaurko aurreraketaren oinarria. Matematika dago, fisia, kimia, injenieritza ta industriaketa ororen azpian. Aurrera Kristiñe, zure jardunketa ederrean.

Gaizki dabil gure ekonomia ere. Baña jakin ezazute gure ekonomia altxatuz, gure artean lan-toki berriak sortuz, gosea gugandik ez dutela txirrindulariek, edo pelotariak edo futbolariak urrunduko. Ori Kristiñe'k bakarrik egin dezaketela, eta Kristiñe onek bezala beren ikasketak benetan artzen dituzten neska-mutillak.

Agur zuri Kristiñe. Zorionak zuri. Eskerrak zuri. Muxu bat zuri 15 urteko neskatz zoragarri orri.

Latiegi'tar Bixente

Aurren txokoa

Bein batean, Errusia'ko Zar nagusia gaxotu eta sendagille batek eta bestek ezin sendatu zutela, azkenean agure batek, ala esan zieten:

- Ni oso gaztea nintzala, Gaztearo-Lurralde bat ba-zala entzun izan nuan, eta lurralde ortan, bizia darion ura iturri batean ba-zala; zergatik ez dezu zure semeetako bat bertara bidali eta bizia darion ura ekarri?

Itxaropenez beterik, Zar Nagusiak bere seme zarrena Migel Errege-gaiari diru-pillu aundi bat eman eta Gaztearo-Lurraldera joatea eskatu zion.

Migel Errege-gaya, abiatu bai, abiatu zan, baña bidean Atsegin-Urira iritxi zanean, bertan goxo egin eta bere aitatz aztu egin zan.

Seme zarrena azaltzen ez zala ta okerren bat gertatuta illa izango zan ustean, or bidaltzen du, Pedro, bere bigarren semea. Onak bere anai Migel aurkitu ta bararekin gelditu zan, aurre-urrats geyago eman gabe.

Iruigarren seme Vladimiro'k joan nai izan zuan, baña Zar Nagusiak, batere semerik gabe gelditzeko beldurrez, joatea galerazi egin zion, baña au, bere aitaren egoera larria ikusiaz, gau batez, ixilka an abiatu da ur-biziaren bila. ATsegin-Urira iritxi zan, baña alde batera utziaz, aurrera jarraituaz, basamortu batean aurkitu zan; ogei egun bear izan zitun aldenik alde igarotzeko ta itsasora iritxiaz, oso zarra zan emakume bat aurkitu, ta Gaztearo Lurraldearen berri galdetu zian. Ara berak emandako erantzuna:

- Milla urte ba-ditut eta egundo ez dut entzun lurralde orren berririk, baña, bear ba'da, nere adiskideek zerbait jakin dezateke. Ala, itsas-ertzeira urreratu ta patrikan zeraman adarra turuta antzera jo, eta bat-batean, ura irakiten jarri balitzaxe, deyari erantzunaz, arryak pilloan agertu ziran, baña inortxok ez zekien Gaztearo-Lurraldearen berririk. Vladimiro, etsita, alde egitera zijoala, or agertzen da bale aundi bat presaka ta muturka. Andreak ala galdetu zion:

- Gazte dotore au Gaztearo-Lurraldera eramaterik bai aldezu?

- Bail, -erantzun zion baleak-; ortarako, gaua iritxi arte zai egon bear degu, Iturriko Sorgiña ta bere zaitzalle diran bi iraunsugeak lotan gelditu arte.

Gaberdan Vladimiro balearen bizkarrean gertu jarri, eta alik ixille-nean, lurralde artara iritxi ziran. Anka muturretan Vladimiro iturri ondora joan eta antxe aurkitu zituan lo-zerraldo sorgiña ta bi iraunsugeak.

Al zuan azkarren eta ixillean bi



botilla urez bete, eta etxeruntz abiatzera zijoala, Sorgiñaren aurre-urtegi polit eta ederra ikusitakoan, lillurata gelditu zan, aita sendatutakoan, bertara etorri ta Sorgiña bereganatzeko asmoz. Ezaugarri bezela, lepoan zeraman diaman-tezko lepokoa, bere irudi ta guzti, Sorgiñaren lepoan jarri ta alde egin zuan. Berriz balearen bizkarrean gertu jarri ta abiatu zan al zuan ariñen etxeruntz, aita lenbaitlen sendatzeko gogo utsuaz. Basamortua igaro eta Atsegin-Urira iritxi zanean, bere bi anai Migel eta Pedro berekin etxera ermateko asmoz, bertara sartu ta, bekaizkeriz, beterik, Migel eta Pedro'k Vladimiro bere anaya il egin zuten. Zeramazkin bi botilla urak artu ta Zar Nagusiarengana iritxi ziran, Vladimiro norbaitek il egin zuala esanez.

Aitak bizia zerion uda edatearekin batera sendatu eta gaztetu egin zan: esker onez beterik, Migel Errusia'ko Ipar-aldeko Nagusi eta Pedro Ego-aldeko egin zituan, baña une berean, egan bi iraunsuge bertaratu, ta Pedro ta Migel gaiztoak, il egin zituzten. Iraunsuge baten gañean, Iturriko Sorgiña zijoan eta beste iraunsuge gañean, Vladimiro.

Zer gertatu zan? Sorgiña esnatu eta lepoan zeraman lepoko argazkia ikusi utsaz, maitemindu eta bere billa bidera irten zan. Lurrean etzanda gorputz aurkitu zuanean, bizia zerion uretik eman, piztu ta Vladimiro'ren jauregira joan da egin zitun aitatutako guztiak. Zar nagusiari guztia adierazi ondoren, Vladimiro berarekin artu ta Gaztearo-Lurraldera abiatu ziran eta oraindik an bizi dira beti gazte, alkar maitatuaz, eta beti zoriontsu.

Gorospet'ar Mikel'ek

Erronkari'ko urrea «Uskara»


Idazlan onen izenburua, Mariano Estornes'en delako liburua irakurri ondotik sortu zitzaidan. 1958'garren urtean argitaratutako liburu ortan, Ezka'ko urrea ibai beiti dijoan egurra da. Liburuaren deraz idatzia dago. Erronkari'ko almadiak aipatzen ditu. Mendiak basoz josiak daude. Oianak nunai ikusten dire; zugaiz mardulak, luzeak eta bikañak. Lendabizi ayek lurrera bota bear, gero errekarano eramane, neurritan ebaki, gero pillatuta bata bertzearekin lotu bearra. Gizon azkarrak eta gogorrak izaki lan ortarako; illabete luzeak basoan, gero ibai ertzean aste aunitz egur ayek lantzen, elkarrekin lotuta, ibai bizkor ortatik egur zamatuak Zaragoza'ra eramane bear. Ezka ibaia, menditartetan erdi erta aserre jartzen da, ala guztiz ere gizonak enbor gañean joan bear.

Uretako ibillaldiak Zaragoza'ra bizpauru aste irauten zuen. Etzen gizonen lana erraldoyena baizik. Alaxeokak dire Erronkari'ko gizonak; azkarrak eta argiak. Bizitzeko lana gogor egin bear, eta gogotik. Nor dugu Mariano Estornes Lasa? Bernardo'ren anaia da, 1909'garren urtean Isaba'n jaioa. Ikasketak egitera ikastetxe nagusira dijoa. Anaia-arte guda datorrean, denak galduta iges egin bear. Erbestera dijoa, Chile'ra aintzuzen.

1958'garren urtean Donosti'ra itzultzen da. Lizentzi bat edestian ateratzen du. Bertze anaiekin batean daukaten irakolan lanean dabil. Donostia'n bizi dire, baiñan

Isaba'ko etxea beti gordetzen dute. Udarak urtero Isaba'n igarotzen dituzte. Ezin bizi Erronkari'ra agertu gabe. Nunbait, ango mendi gallurak eta ur garbiak deitzen, baiñan danez gain «uskara» zarraren otsak zirikatzen, oiuri barruan ez ixiltzen. Bertako «uskararekin», maitasunez lotua gelditzen da Estornes'tar sendi osoa. 1961'garren urtean Jose zen anaia. Erronkari'ko uskara delako liburua guztiz ederra argitaratu zuen. Liburu ori oñari bezala artuta, «uskara» irakasten asten zaizkie Isaba'ko seme alabei. Ikasketak uztailan asten ziren eta irailan amaitzen. Gabeko zortiztan bildurik egunero amarrak arte

irauten zuten, jo ta ta ke, ikasten. Talde koxkorra datorkie, ogeiren bat ikasle. Orrela Isaba'n «uskara» erakasten ogeiren bat urte iraun zuten. Bereala oartu ziren egitazko Erronkari'ko urrea «uskara» zela. Mariano Estornes'ek sortu zuen Isaba'n Nafarroa'ko Burubatzarra 1934'garren urtean. Asieran Agirre ta Aitzol ekarri zituzten itzaldia ematera. Orduan ateratako argazkian Mariano Estornes Erronkari'ko jantziekin agertzen da Jose Antonio Agirre ta Aitzol'en ondoan. Bertako abertzaleak amabi ziren. Geroztik euskal azia ereiten alegindu da. Euskal kulturaren alde, emen lan egiteak merezi du. Euskalerriko



Mariano Estornes Lasa.

saietsa Erronkari dugu.

Latxaga